

Munduko Poesia Kaierak: hamarkada baten kontakizuna.

Beñat Sarasolari eta Maialen
Berasategiri elkarrizketa

GARAZI GOLDARAZENA SANCHEZ

MPK bildumaren 10. urteurrena dela-eta, euskal poesia itzulia eta bilduma bera aztertzea xede zituen gradu amaierako lanaren aitzakian bildu zen artikulua honen egilea Beñat Sarasola zuzendari ohiarekin eta Maialen Berasategi egungo zuzendarietako bat denarekin (Isabel Etxeberria da beste zuzendaria). Bildumaren bilakaeraz eta nondik norakoez jardun ziren, eta libreki aritu ziren solasean bi elkarrizketatuak, pasadizoak eta burutazioak tartekatuz. Elkarrizketaren helburua informazioa jasotzea zen, eta ez zen artikulua formatuan argitaratzeko pentsatua. Hala ere, elkarrizketa hartan aipatutako kontuei esker bildumaren historiaren kontakizun osatua eta bateratua egitea posible zela ikusita, elkarrizketa argitaratzea erabaki genuen.



GARAZI GOLDARAZENA: Munduko Poesia Kaierak bilduma 2014an jarri zen martxan, eta, aurretik, 2013. urtearen amaieran, o. kaiera argitaratu zenuten, aurkezpen gisa. Noiz eta nork bultzatuta sortu zen Munduko Poesia Kaierak bilduma? Zein izan zen hura sortzeko arrazoia?

BEÑAT SARASOLA: Memoria egiten ibili naiz, eta egia da 2013ko o. ale hori proiektua aurkezteko atera genuela, gerorako prest

genituen poema batzuekin. Baina proiektuarekin hasiko ginela 2013ko urtarrilean erabaki genuen. Susa argitaletxearen barruan, barne-bilera moduko bat egiten zen urtarrilean, proiektuei buruz hitz egiteko. Garai hartan, Gorka Arrese zen editorea. Argitaratuko ziren liburuez eta Susa argitaletxearen inguruko beste proiektu batzuez hitz egiten zen, eta beti hor zintzilik zeuden ideiei buruz ere bai. Tartean hau zegoen.

Idea hau ez nuen nik asmatu; urteak zeramatzan Susaren barruan. xx. mendeko Poesia Kaierak bildumatik zetorren; Koldo Izagirrek editatu eta zuzendu zuen, eta Euskal Herriko xx. mendeko poeten antologiak argitaratu ziren. Idea ordutik zegoen, gauza antzekoa egitekoa, baina atzerriko poesiarekin, erdaretako poesiarekin. Bizpahiru pertsonak izan zuten ideia hori bultzatzeko ardura, baina, holako zeretan, askotan gertatzen den bezala, jende guztia topera dabil eta horrelako kontuak oso amateurrak izaten dira, hasieretan behintzat, eta orduan ez zuen inork tiratzen. Gogoan dut bilera horretan, proiektuak aurrera egiten ez zuela ikusita, jadanik genituenak online publikatzen hastea planteatu zutela, eta nik esan nuen: «Tira, pena bat da; zergatik ez dugu azken saiakera bat egiten?». Eta esan zidaten: «Zuk hartuko zenuke?». Garai horretan unibertsitatean hasi gabea nintzen, eta denbora nuen gauzak egiteko, bultzatzeko, eta ziurrenik motibazioa eta gaztetasuna, gaur egun ja gutxiago dudana, eta ausardiaz esan nuen: «Aurrera». Esan zidaten lehenengo alea argitaratzeko hamar kaier izan behar genituela lotuak; bestela, horrelako proiektuak hasi eta berehala erortzen dira. Are gehiago —eta gaur egunetik pentsatu eta erokeria bat iruditzen zait— kontuan izanik sei kaier argitaratzen zirela urtean, hiru udaberrian eta hiru udazkenean. Baina, ez dakit, ausarkeriaz edo, baietz esan nuen, eta horrela hasi ginen. Lehen urtea izan zen, batez ere, lehenengo hamar horiek lotzea. Antton Garikanoren Trakl, Merce Marçal Itxaro Bordarena eta Cesaire Iñigo Aranbarrirena eginak edo oso aurreratuak zeuden. Hortik abiatu ginen eta horrela hasi zen.

Idea, beraz, Susan zegoen aspalditik; esku batetik bestera pasatu zen, eta, azkenean, nik proposatu nuen azken saiakera egitea, hortik abiatuta.

GARAZI: Tira, eta gaur arte. Aipatu izan duzu beste elkarrizketa batzuetan ikusten zela bazegoela hutsune bat poesia itzultzeko orduan. Hala uste duzu?

BEÑAT: Abiatu ginenean, poesia itzulia oso gutxi argitaratzen zelako inpresioa genuen, eta itzultzen zela normalean modu oso soltean, aldizkarietan eta, baina ez zegoela proiektu egonkorrik. Horregatik, egonkortasunarena oso inportantea zen guretzat, eta hamarretik hastearenak horrekin zuen zerikusia. Saiakerak egon ziren arren, ez zegoen poesia itzultzen zuen proiektu egonkorrik, eta falta bazegoen nabarmena. Literatura Unibertsala bilduman ere oso poesia gutxi argitaratu da, eta liburuak ere nahiko solte itzuli izan dira. Idea zen Literatura Unibertsala bezalako proiektu bat sortzea, poesia itzuliko zuena, antologiak, eta autore bakoitzari sarbide izatea helburu zuena. Asmoa ez zen, inolaz ere —ez baike nuen gaitasunik, ezta baliabiderik ere— edizio kritiko sakonak egitea. Horregatik, kaierek ez dute aparatu kritikorik, oin-ohar gutxi egiteko joera dago... Nolabait, irakurketa garbi xamarra bultzatzea, jendeak jakin-minez irakur dezan eta zaletu dadin. Hori zen helburua. Finean, xedea zen poesia itzultzea ahalik eta modu onenean eta edozein irakurlerentzat eskuragarri izan daitezkeen edizioak egitea. Gabezietatik abiatu ginen, baina, egoera hain zen prekarioa poesia itzultzeari dagokionez, ezen esan genuen: «Egin dezagun aurrera». Eta horrela hasi ginen. Helburua

hori zen, hastera eta jendeak aukera izan zezala poesia euskaraz irakurtzeko, eta corpus bat sortzea, ez baitzegoen. Prosan, bi-hiru hamarkadatan sekulako corpora sortu da euskal idazleentzat, erreferentzia izan dena, eta euskal poetentzat ere horrelako zerbaitez funtsezkoa iruditzen zitzaigun.

GARAZI: Hamar kaier lortu zenituzten, eta aurkeztu zenuten bilduma. Zein izan zen harrera?

BEÑAT: Harpidetzak ikusita, esan dezakegu publikoaren aldetik harrera oso ona izan zuela bildumak, baita prentsaren aldetik ere. Adibidez, gogoratzen naiz hasierako aurkezpen guztietara etortzen zela prentsa, eta haietaz ez da gauza erakargarria hiru liburu aldi berean argitaratu izana, urtean sei direla kontuan harturik, gainera; eta, hala ere, etortzen ziren. Interes horri esker —hori salmentetan ezin duzu ebaluatu—, proiektua ezaguna egin zen inguruan, eta oso baloratua da, eta alde horretatik guk berehala ikusi genuen hor bazegoela interesa, eta asko poztu ginen. Proiektua aurkeztu ondoren, itzultzaileengana joaten ginenean, nahiz eta batzuk prest ez egon edo ez ikusi beren burua poesia itzultzeko prest, denek, baita Susarekin harremanik ez zeukatenek ere, harriz eta esker onez erantzuten zigten. Susan sekula publikatu ez duen jendeak publikatu du MPKn: itzultzaileek, idazleek... Denek oso harrera beroa egin diote, eta alde horretatik erraza izan da, nolabait. Poesia itzulpenarekin hainbesteko errezeloa zegoen horretan, nahiko erraz suertatu zitzaidan hasieran jendearengana jotzea.

GARAZI: Zortzi urtez izan zara bildumako zuzendari. Zer dela eta erabaki zenuten zuzendaria aldatzea?

BEÑAT: Bilduma utzi baino urte bat edo urte eta erdi lehenago proposatu nuen Susan lekukoa ematea. Hartu nuenean, egoera pertsonal jakin batean nengoen, eta, utzi nuenean, erabat ezberdina zen egoera: unibertsitatean eskolak ematen nituen jardunaldi osoan, beste mila kontu ere banekizkan, nobela publikatzeaz... Eta uztea erabaki nuen, baina 40. kaiera egin ondoren izango zen. Denbora izan zen prozesu hori egiteko, eta Susan hartu ziren erabakiak.

GARAZI: Maialen, esanen zenuke zuei lekukoa eman izanak aldaketaren bat ekarri duela?

MAIALEN: Prozesuan zehar Beñatekin hitz egin genuen, eta hark ondo azaldu zigun zertan zen proiektua. Ekimena miresten eta errespetatzen genuenez, gauzak aldatzeko libertate osoa eman zitzaigun arren, ahalik eta aldaketa gutxien egitea erabaki genuen hasieratik. Arrazoia ez zen ez genituela aldaketa horiek egin nahi, baizik eta iruditu zitzaigula ez zegoela beharrik, oso ondo zegoela zegoen moduan. Bildumaren jarraipena izatea nahi genuen, eta, gainera, bilduma bakarra da, eta koherentzia bati eustea ere nahiko garrantzitsua iruditu zitzaigun. Beraz, azken batean, aldaketa nagusia izan da editorea ez dela pertsona bera, bi garelak. Hori hitzaurreetan nabaritzen da, esaterako: desberdinak dira, hiru ahots daude orain, tartekaturik. Gainerakoan, saiatu gara aurretik zegoenari eusten. Beharbada —eta autokritika moduan diot guztiz—, hasiera

batean, pixka bat asentatu ginen arte, jendea lotzea eta geure burua kokatzea kostatu zitzaigun, eta uste dut poeten aniztasunean nabari dela hori. Badaukagu arantza bat, ez dugula lortu nahi genuen aniztasuna, eta uste dut zuk, Beñat, guk baino hobeki lortu zenuela. Batez ere hizkuntza aldetik, ez da guk nahi genukeena.

BEÑAT: Ezta nik nahi nukeena ere. Hori izan da beti gure gabeziak bat. Egia da guk ere kezka bera izan genuela, hasieratik, eta saiakerak egin izan ditugu; eslovenieratik itzultzeko, esaterako. Baina, jakina, zubi-hizkuntzak erabiliz, eta horrelako asko ezin dira egin... Agian, aitzakia moduan edo, baina uste dut ez dela aitzakia ere: azken batean, bildumak dituen gabeziak gure gabeziak dira. Euskal Herriak eta euskal literatur sistemaren gabeziak islatzen dira hor ere, saiakera egiten dela eta egin behar dela, baina iristen da muga bat. Ez da bakarrik itzultzailea aurkitzea, nik zer dakit nongo hizkuntzako literaturara iristeko gaitasuna izatea ere bada, handik aukeratzeko, edizioak aurkitzeko... Gauza asko dira. Are gehiago, beste gauza bat esango dizut, beste kezka batetik abiatuta: bildumak estrukturalki badauka izaera mendebaldar bat, autorean baitago oinarritua. Badaude literatura eta hizkuntza batzuk non agian egitura hori ez den egokiena poesia argitaratzeko, autoretza ez delako hain garrantzitsua, edo autoreek ez dutelako hainbesteko pisurik —beren poesia oso interesgarria den arren—. Agian posible izan liteke ateratzea antologia bat ez dakit zer txokotako poesiarena; baina, horrela argitaratuta ere, beste kaierekin konparatuz badirudi gutxiesten ari zarela:

demagun poeta kitxuen antologia bat argitaratzen dugula, eta beste guztiak direla Merini, Pound... Aniztasunari dagokionez, beraz, bilduma baten egiturak berak ere markatzen ditu horrelako gauzak.

MAIALEN: Trantsizioa egin genuenean, guk ere planteatu genituen horrelakoak, eta oraingoz alde batera utzita dauzkagu, aipatutako arrazoiarengatik. Iruditzen zaigu, alde batetik, polita litzatekeela; baina, beste aldetik, ez dator bat: non jarri muga, ezein hizkuntza edo herri beste batzuen aldean gutxietsita gera ez dadin... Kontsideratzen dugu itzultzaileek mesede handia egiten digutela, nahiz eta haientzat ere lan polita den eta oso gustura egiten duten, kaiera txikia izan arren lan handia baita. Saiatzen gara hori nolabait konpentsatzen eta, askorik ordaindu ezin dugunez, behintzat libertatea ematen: zerrenda bat proposatzen diegu, baita hautaketan laguntza eskaini ere, ondoren haiek aukeratu dezaten, motibaturik egiteko lan hori, gutxienez. Horrek zer dakar? Denoi gertatzen zaiguna; zer poeta ezagutzen ditugu? Mendebaldekoak, eta gehienetan gizonak, eta gehienetan kanoniko samarrak... Horrek ere eragina du aniztasunean; ez dugu geure burua gauza ikusten itzultzaileak behartzeko, agian ezetz esan dezaketelako, eta ulergarria da.

GARAZI: Sakonduko dugu bildumaren alderdi tekniko horietan, ikusita horrek ere baduela eragina bildumaren nolakotasunean. Aukeraketa prozesua aipatu duzue, eta, esan duzuenaren arabera, lehenik itzultzailea dago. Itzultzailea, ordea, zerrenda bat buruan izanik hautatzen duzue, ez da hala?

MAIALEN: Bai, badaude autoreentzako irizpide batzuk. Hasteko, antologia bilduma da; beraz, lehen baldintza da autoreak hilik behar duela, bestela baliteke beste obraren bat argitaratzea kaieraren ondoren, eta hori ez zaigu komeni. Gero, autoreak kanoniko samarra izan behar du, komatxo guztiekin, bai baitakigu kanona nork egin duen eta nola egin duen, baina kanon hori onartuta. Azkenik, garaia dago, ez baikenuen duela bost mendeko autore bat aukeratu nahi, eta, beraz, XIX. mendearen erdialdetik gaur egunerainoko denbora-tartea hartzen dugu kontuan. Esandakoarekin, markoa nahiko zedarritua gelditzen da. Hortik aurrera, saiatzen gara ahalik eta hizkuntza gehien kontuan hartzen; zerrenda osatzen dugu pixkanaka, eta oinarri horrekin joaten gara itzultzaileengana.

BEÑAT: Nire kasuan, ez nuen zerrenda esplizitu bat, baina banituen ezagutzen ez nituen tradizio eta hizkuntzetako zerrenda modukoak. Antologietan ibiltzen nintzen etengabe begiratzen eta zerrendatzen. Pentsatzen nuen nor izan zitekeen itzultzailea, hari galdetzen nion zer poeta itzuliko zukeen gustura, bizpahiru izen eskatu, eta izen horietatik abiatuta alde baterantz edo besterantz bultzatzen nuen egitera itzultzailea, eta horrela adosten genuen. Gero, beste batzuei berdin zitzairen, eta proposamenak eskatzen zizkidaten. Leire Bilbaoren kasua izan zen hori, esaterako; Nijole Miliauskaite itzuli zuen.

GARAZI: Hortaz, itzultzaileak autore batzuk proposatzen ditu eta elkarrekin aukeratzen duzue. Poemen hautaketa noren

esku gelditzen da? Logika berari jarraitzen diozue?

MAIALEN: Itzultzailearen esku uzten dugu. Azken batean, kontsideratzen dugu bera izango dela adituagoa gu baino, eta guk materialarekin laguntzen diogu, antologiak lortzen eta. Poeta bakoitzaren antologikoen hartzea gomendatzen diegu, errepikatzen diren poemak, gehien aipatzen direnak... Horrez gain, saiatzen gara poetaren ibilbide osoaren erakusgarri bana edo batzuk sartzen, ez bakarrik poetak ospea izandako garaietakoak. Kasu batzuetan, nahiz eta poema bat leku askotan ez agertu, esanguratsua iruditzen bazaigu poetaren estiloaren edo garaia erakusgarri ona delako, sartu egiten dugu.

BEÑAT: Aukeraketa objektiborik ez dago, eta, aipatu bezala, bildumak badu abiapuntua eta kokaturik dago. Horregatik, adibidez, poetaren batek Euskal Herria aipatzen den poemarik badu, agian Japoniako antologia batean ez du zentzurik izango poema hori agertzeak, baina hemen bai. Gogoratzen naiz Eugenio Montaleren kaieran hori egin zuela Anjel Lertxundik. Beste alde batetik, batzuetan gertatu da itzultzailearen batek poema bat sartu nahi izan duela baina, ezin izan duenez nahi zuen kalitatean itzuli, baztertzea deliberatu du azkenerako. Batzuetan, horrelako erabakiak hartu behar izaten ditu itzultzaileak.

GARAZI: Hasiera batean aipatu duzue bildumaren sorreran sei kaier itzultzen hasi zinetela urtean, hiruko bi txandatan. Zeren arabera diseinatu zenuten hori?

BEÑAT: Esango nuke Susaren eta Euskal Herriko argitaletxe gehienen plangintzan bi argitalpen garai daudela: udaberria eta udazkena, azkena ezagunena Durangoko Azokarengatik. Hirunaka zergatik? Susan gauzak egin izan direlako oso modu nola esan... «basatian». Zentzu onean, jakina (barreak). Orduan, zergatik ez? Gaur egunetik begiratuta, lan handia da, baina proiektuaren hasieran bultzada emateko sentitzen zen behar bat izan zen. Hasieran ez zigun hainbesteko bertigorik eman, ezagutzen baikenuen jende nahikoa autoreak jadanik gutxi gorabehera itzuliak zituen baina argitaratu gabe. Gero, bazeuden aspaldi argitaratutako gauzak baina berrikuspina behar zutenak; adibidez, Juanjo Olasagarreren Philip Larkinen itzulpena. Hasieran, erraz samar ikusten genituen hamar kaier, baina, horiek amaitu zirenean eta berriak bilatu behar izan zirenean, zailtasuna handitu egin zen. Nire ustez, besteak beste, horrek eragin zuen gero hirutik bira pasatzea. Horrez gain, harpidedunek esaten ziguten urtean sei kaiera irakurtzea erritmo altua zela. Beraz, oreka topatu beharra genuen, irakurleei arnasten uzteko eta dosifikatzeko.

GARAZI: Kaieren azala bildumaren bereizgarri bilakatu da. Nolakoa izan zen hura sortu eta erabakitze prozesua?

BEÑAT: Proiektua sortu zen garaian, Gorka Arrese zen editorea, eta erabaki zen Susan bidaia bat egitea Bartzelonara, hango argitaletxe batzuekin harremana egiteko. Bidaiaaren helburuetako bat zen erabakitzea nolakoa izango zen bildumaren azala: Ravaleko La Central liburu dendara

joan ginen, eta hor aritu ginen poesiazko edizioak ikusten, inspiratzeko. Halako batean, Samuel Becketten obren ingelesezko liburuekin topo egin genuen, eta, haren oso zalea nintzen eta diseinua oso polita zenez, ia-ia kopia egin genuen (barreak). Formatu hori erabili genuen kaieretarako; letra-tipoa erositako da, eta Beckett du izena. Asmoa zen azal errazak izan zitezen, ale batetik bestera pasatzeko, baita identifikagarriak ere. Azkenean, horrela gelditu zen: kolorea aldatzen da, letrak aldatzen dira, baina gainontzeko guztiak bere horretan jarraitzen du. Juanba Berasategik egin zuen logoa. Horregatik, bildumak berak presentzia handia hartu zuen; izan ere, ez zen Susako logoa agertzen, bildumarena baizik. Indarra jarri zen bildumaren izaera indartzeko, eta horrela erabaki zen azala.

GARAZI: Azalak aditzera ematen du bildumaren izaera, eta hor ageri da itzultzailearen izena ere.

BEÑAT: Erabaki kontzientea izan zen, jakina. EIZIEk urteetan egin du indar eta defentsa horrena, eta hasieratik denok argi genuen itzultzailearen izena azalean joango zela.

GARAZI: Hitzaurrea zuzendariek egiten duzue. Aipatu duzuen bezala, bildumak poeta batzuei sarrera egitea bilatzen duenez, era horretan hartzen du zentzua hitzaurreak, idazlearen testuingurua eta bizitza azaltzen baitira bertan, baita poeta bakoitzaren poesia non kokatzen den ere. Zer arrazoi daude hitzaurrea zuzendariak idazteko? Pentsatu duzue sekula zuzendaria ez den norbaitek idaztea?

BEÑAT: Hasieran nahiko argi izan genuen batasuna eta sistematikotasuna mantentzeko garrantzitsua zela ahots bera egotea, kaier guztiei segida emateko nolabait; baita kaieren arteko erreferentziak egiteko ere, hitzaurre batzuetan loturak sartu izan baitituzte. Hori ahots batek egiten badu, posible da, noski, baina, ahots desberdinak badira, lotura horiek ezin dira hain erraz egin. Alde horretatik, uste dut positiboa izan daitekeela ahots bakarra egotea. Beste eredu bat izan da Literatura Unibertsalarena, askotan itzultzaileak berak edo hirugarren pertsona batek egin izan baitituzte hitzaurreak. Baina, berriz diot, osotasunaren ikuspuntutik pentsatu genuen editoreak egitea hitzaurrea. Kontua da iritsi zela momentu bat non sentsazioa nuen, eta gainera bakarra izanda, protagonismo handiegia hartzen nuela editore gisa eta bilduma asko lotzen zela nirekin, lanaren zatirik handiena benetan itzultzaileek egiten bazuten ere. Egia da bi izanda hori ere lausotzen dela neurri batean, eta gauza bat dela bildumaren ikuspuntua eta bestea norberarena. Iruditzen zait editorearen figurak itzaleko figura bat izan beharko lukeela, eta batzuetan horrelako bilduma batean mundu guztiak zuregana jotzen du, galdetzen dizu, aurkezpenetan zu zaude... Itzultzaileak aldatzen dira, eta editoreak hor dirau, baina lanik handiena itzultzaileena da.

MAIALEN: Guk ere izan ditugu horrelako barne-gatazkak. Guztiz ados nago esan duzunarekin: editoreen lanak itzalekoa behar luke. Gure kasuan, zureari jarraitu nahi genionez, hitzaurreak geuk idaztea

erabaki genuen. Egia da hasieran beldur izan ginela, segurtasun faltagatik, hanka sartuko ote genuen edo azalckerian geldituko ote ginen. Baina, era berean, iruditzen zitzaigun bi pertsona egoteak bildumari sendotasuna eta egonkortasuna ematen diola, eta hori ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Horregatik, gure zalantza guztiekin ere, aurrera egitea erabaki genuen. Gero, betiko eztabaida da ea itzultzaileak idatzi behar duen hitzaurrea ala ez; gehienentzat fardel handia da hitzaurrea idaztea, mesede bat egiten ari zaizkigun horretan.

BEÑAT: Gainera, oso formatu itxia du hitzaurreak. Agian, hitzaurre bat baino gehiago egiten baduzu neurria hartzen diozu, baina 3.000 karaktereko hitzaurrea idaztea ez da erraza. Ez errepikatzea egitura, sintetizatzea... Tarteak ez da handia.

MAIALEN: Ez da erraza oreka aurkitzen. Beste aukera bat izan zitekeen beste norbaiti ematea, baina hori ere lan handia da, eta aipatutako zailtasunak ditu.

GARAZI: Bilduma Susa argitaletxearen barrenean kokatzen da, baina, aipatu duzuenek, bildumaren izaera propioa bultzatzeko ahalegina egin da. Zenbateko autonomia duzue?

MAIALEN: Susan libertate osoa ematen digute. Zorte handia dugu: ezinbesteko lan asko beren gain hartzen dituzte (maketazioa, egile-eskubideak kudeatzea, prentsarekiko harremana...), aholkua eta laguntza eskaintzen digute, baina erabakimen osoa ematen digute. Guk ere errespetu osoz jokatzen dugu, eta gauza inportanteak beti

kontsultatzen dizkiegu, bilduma Susarena delako. Konfiantza hor dago.

GARAZI: Harpidetza bitartez funtzionatzen du bildumak. Zergatik?

BEÑAT: Bildumaren ezaugarrietako bat da harpidedunak dituela, eta, hasieran, aurkezpena egiteko motiboetakoa izan zen harpidetzak bilatzea. Horrelako liburuak oso gutxi saltzen dira dendetan, eta, hortaz, hasieratik garbi ikusi genuen harpidetza sistema bidez ez bazen zaila izango zela horrelako proiektu bat martxan jartzea, prekaritate guztiekin: itzultzaileek jasotzen duten ordainsaria txikia da, eta prozesu guztian oso gutxi kobratzen du jendeak. Orduan, harpidetza ezinbestekotzat jotzen zen. Hori izan zen erronketako bat, eta, bertu zenean harpidetza minimo bat eta ikusi zenean interesa bazegoela, erabaki zen bidea bazuela proiektuak. Harpidetzak daukan abantailetakoa bat ez da soilik segurtatzea kaier batzuk salduko direla, baizik eta dirua ziurtatzea aurrez, eta hori gauza handia da liburuaren argitalpenen plangintzan. Likidez kontuotarako oso baliagarria da harpidetza. Gainera, Susan erabaki zen bildumak

autonoma izan behar zuela ekonomikoki eta ez zuela eragin behar Susako gainerako alderdi ekonomikoetan. Eta harpidetzekin, salmentekin eta dirulaguntzekin batera bertu dugu bilduma beregaina izatea, betiere prekaritatean, itzultzaileen ordainsaria ez delako nahiko genukeena.

GARAZI: Amaitzeko, bildumaren bilakaeraren eta ezaugarrien sintesitik abiatuta, zein esanzen zenukete direla datozen urteetarako erronka nagusiak?

MAIALEN: Aipatu bezala, poeten aniztasunaren aferan badugu arantza, hain zuzen ere egoera aldatu nahi dugulako. Badakigu mendealdarrak garela eta bilduma mendealdarra dela honako hau; mendealdeko kanona oso zabala eta aberatsa dela ahaztu gabe, noski. Hala ere, hortik haratago ere begiratu nahiko genuke, beste leku batzuei erreparatu eta bertako ahotsak ekarri. Sexuari dagokionez ere, emakume gehiagoren ahotsak ekartzea dugu helburu. Argi dugu ez direla gutxi ditugun zailtasun eta gabeziak, baina horiek dira gure helburuak. Ez dakigu lortuko dugun, baina saiatu, behintzat, saiatuko gara.